

Larre gorriak desagertzen ari dira Euskal Herriko kostaldean

Euskal kostaldeko *Gelidium corneum* alga gorrien populazioak gainbehera larria izan du azken urteetan. EHUko [Itsas Bentos](#) ikerketa-taldeak bildutako datuek erakusten dute azken bi hamarkadatan populazioa erdira jaitsi dela leku askotan, eta muturreko kasuetan % 80ko presentzia izatetik % 5era pasa dela.

“Aldaketa izugarriak ari dira gertatzen gure itsaspeko paisaian; lehen alga-larre zabalak zeuden tokietan, orain basamortu-itxura duten eremuak daude. Produktibitate-galera garrantzitsu bat izaten ari gara”, dio ikerketa-taldeko buru Jose Maria Gorostiagak. Kondizioak aldatu egin dira azken urteetan. Batetik, uraren temperatura epeldu egin da: abuztuko batez bestekoa 1 °C igo da azken hiru hamarkadetan, eta inoizko temperatura handienak izan dira (26,2 °C-ko maximoa, 2003ko abuztuan). Eguzki-erradiazioak ere gora egin du, eta *Gelidium* mak horitzea eta zuritzea eragin du horrek. Mantenu-gaiak, berriz, urritu egin dira, azaleratzeen aldaketen eta ibaietatik heldutako ur-emariaren murrizketaren eraginez. Eta beste faktore batzuek ere badute eragina: herbiboroen eta ekaitzen areagotzeak, esaterako.



Gelidium corneum alga gorria. ARG.: EHU.

Gelidium corneum alga handia da, eta olatuek gogor jotzen duten tokietan kokatzen da. Garrantzia handia du itsas ekosistemaren funtzionamenduan, beste alga eta animalia askoren bizileku eta babeslekua baita. Baina haren tokia beste alga batzuk ari dira hartzen.

Aldaketa horien guztien ondorioz, espezie berriak ari dira agertzen. Ikertzaileek ikusi dutenez, 1.991an euskal kostaldeko bioaniztasuna 90 espeziek osatzen zuten, eta, 2013an 116 kontatu dituzte. “Espezie gehiago egotea ez da beti positiboa”, dio Isabel Diez ikerketa-

taldeko kideak. “Ekosistema batean positiboa dena da funtzioak eta prozesu ekologikoak mantentzea. Hau da, produktibitatea eta bioaniztasuna mantentzea, baina ez bakarrik espezie kopuruari dagokionean, baita aniztasun genetiko edota funtzionala bezalako terminoetan ere. Izan ere, gure kostaldera sartu diren espezie berriek biomasa gutxi ekartzen dute, oso txikiak eta morfologia sinplekoak baitira. Gainera, iragankorrak dira eta ez dute eskaintzen beharrezkoa den egiturarik arrain eta ornogabeen babesamaterako”.

Landare-hormak, eraikinetan soinua xurgatzeko

EHUko ikerketa baten arabera, landarek osatutako hormak soinua xurgatzeko ahalmen handia dute, eta soinu-isolatzaile gisa ere erabil litezke.

Horma berdeak landare-moduluz osatzen dira: landareak polietilenoazko kaxetan sartzen dira, eta irrigazio organiko bidez mantentzen; hots, negutegietan erabili ohi diren sistema hidroponikoen antzeko sistema baten bidez. EHUren Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan ikerketa bat egin dute, halako hormak soinutik babesteko erabilgarriak diren ikusteko.

Ikerketan, horma berdeen soinu-xurgapena eta soinu-

isolamendua aztertu dituzte, ISO arauak ezartzen dituzten baldintzak betez. Alde bate-tik, erreberberazio-gela ba-

tean egindako probetan, ikusi dute horma berdeek zarata murrizteko oso errendimendu ona dutela, frekuentzia

baxu zein altuetan (eraikinetan erabili ohi diren bestelako materialek ez bezala, haiek frekuentzia altuetan edo baxuetan bakarrik baitute errendimendu ona). Bestetik, laborategiko horma batean landare-moduluak sartuta, ikusi dute soinu-isolatzaile egokiak izan daitezkeela.

Eraginkorrak izangatik, gaur gaurkoz eraikin berezietarako aukera gisa soilik ikusten dituzte halako hormak iker-tzaileek. Izan ere, landareak horma gisa erabiltzeko kondizioetan haztea eta mantentzea lan zaila eta garestia da, momentuz. Ikerketaren [emaitzak Applied Acoustics aldizkarian argitaratu](#) dituzte.



Soinu-xurgapenaren proba egiteko erreberberazio-gela. ARG.: EHU.